



Jasangarritasun-arriskuak integratzeko politika

Kutxabank Vida y Pensiones

5.0 bertsioa – 2023/12/12

Aldaketen kontrola

Bertsioen historia		
Bertsioa	Data	Egindako aldaketen laburpena
1.0	2021/03/17	Lehen bertsioa
2.0	2021/12/15	2021eko urteko berrikuspena
3.0	2022/07/13	Ikuspegia egokitzea jasangarritasun-arriskuen integrazioa jasotzeko
4.0	2022/12/14	2022ko urteko berrikuspena
5.0	2023/12/12	2023ko urteko berrikuspena

Erantzukizuna	
Izena	Arriskuen Kudeaketaren funtzioa

Eragindako dokumentazioa

Dokumentazioa	
IDa	Izena
-	
-	

Aurkibidea

1. Sarrera.....	5
2. Aplikazio-eremua	5
3. Jasangarritasun-arriskuen kudeaketa eta erabaki-prozesuak.....	5
4. Jasangarritasun-arriskuak integratzeko printzipio orokorrak	6
5. Onestea, berrikustea eta eguneratzea.....	7
I. eranskina: Arau-esparrua.....	8

1. Sarrera

Dokumentu honek Kutxabank Vida y Pensiones, Compañía de Seguros y Reaseguros SAUren (aurrerantzean, «**Kutxabank Vida y Pensiones**» edo «**Konpainia**») jasangarritasun-arriskuak integratzeko politika (aurrerantzean, «**Politika**») jasotzen du.

Konpainiako Administrazio Kontseiluak onetsi du Politika, jasangarritasun-arriskuak integratzean aplikatu beharreko filosofia eta gobernu-printzipioak jasoz.

2. Aplikazio-eremua

Politikaren aplikazio-eremua araudi honek eragindako Konpainiaren produktuetara mugatzen da:

- Errenta Indibidualen Asegurua
- Unit Linked Asegurua
- Aurre-erretiroen Asegurua (pentsioengatiko konpromisoak kanporatzea)
- Aurreikuspen Plan Bermatuaren (APB) Asegurua
- Aurrezki Sistematikoko Plan Indibidualaren (ASPI) Asegurua
- Erretiro Plan Errebalorizagarriaren (PJR) Asegurua

Araudiak ere eragiten die –eta, beraz, Politika honen aplikazio-eremuaren barruan daude– Konpainiak kudeatutako Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE):

- Biharko, Enpleguko BGAE
- Trabajadores de Productos Tubulares, Enpleguko BGAE
- Previsión Viviendas de Vizcaya Gizartea, Enpleguko BGAE

3. Jasangarritasun-arriskuen kudeaketa eta erabaki-prozesuak

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Finantza-zerbitzuen sektorean jasangarritasunari lotutako informazioa zabaltzeari buruzko 2019ko azaroaren 27ko 2019/2088 (EB) Erregelamendua aplikatuz, gardentasuna indartzeko eta azken inbertitzaileei informazioa emateko, Konpainiak informazioa eman behar du bere webgunean dagozkion jasangarritasun-arriskuak, materialak edo material posibleak Konpainiak inbertsio-erabakiak hartzeko prozesuetan integratzen dituen moduari buruz, prozesu horien antolaketari, arriskuen kudeaketari eta gobernantzari buruzko alderdiak barne.

Enpresen funtzionamenduko eta negozio-ereduko zenbait alderdik ustekabeko galerak, gastuak, inefizientziak, auziak, erregulazio-presioa eta ospe-inpaktuak eragin ditzakete. Adibidez, klima-aldaketari lotutako aktiboak, lan-harremanen arloko erronkak eta gardentasunik eza kontabilitate-praktiketan.

Maila subiranoan eta, oro har, Administrazio publikoaren beste esparru batzuetara (tokiko administrazioa, etab.) estrapolatzeko moduan, natura-baliabideen kudeaketarekin, osasun publikoko araudiekin eta ustelkeriarekin –eta, oro har, garapen sozialaren indizearekin– lotutako arriskuek eragina izan dezakete, besteak beste, diru-sarrera fiskaletan, balantza komertzialean eta atzerriko inbertsioan.

Efektu horiek jaulkipenen (bonuak, akzioak, etab.) prezioak jaistea, prezio horren hegakortasuna handitzea eta ez-ordaintzeen arriskua areagotzea eragin dezakete.

Aurrekoarekin bat etorritik, Kutxabank Vida y Pensiones-ek aintzat hartuko ditu jasangarritasun-arriskuak (ingurumena, gizartea eta gobernu korporatiboa) bere inbertsio-zorro osorako inbertsio-erabakiak hartzeko prozesuan.

Alde horretatik, eta behean azalduko den bezala, Kutxabank Vida y Pensiones-ek hainbat jarduketa-ildo definitu ditu arrisku horiek inbertsio-erabakiak hartzeko prozesuan integratzeko.

Kutxabank Vida y Pensiones-ek ez ditu kontuan hartzen bere inbertsio-zorroko jasangarritasun-faktoreen gaineko kontrako gorabehera nagusiak (gaztelaniazko siglak: PIA), gaur egun ez duelako eginbide egokiaren politikarik kontrako gorabehera horiei dagokienez eta ez dagoelako horretara behartuta araudi bidez duen tamaina dela-eta. Hala ere, merkatuaren egoera eta arau-garapenaren aurrerapenak baloratuko ditu, bere jasangarritasun-estrategiaren argitan, erabaki hori aldiari aldiari birplanteatzeko, hala badagokio.

4. Jasangarritasun-arriskuak integratzeko printzipio orokorrak

Inbertsioari buruzko erabakiak hartzeko bere prozeduraren barruan, Kutxabank Vida y Pensiones-ek aldiari aldiari neurtuko du bere inbertsio-zorroaren azpiko inbertsioen jasangarritasun-arriskuekiko esposizioa.

Helburu hori kontuan hartuta, metodologia hau ezarri da inbertsio-prozesuan jasangarritasun-arriskuek dituzten inpaktuen jarraipena egiteko:

- Azpiko inbertsioen jasangarritasun-arriskuen neurketa, inbertsio berriak barne, ESG kalifikazioaren adierazleak lortuz eta hautatuz egingo da, honela:
 - ✓ Bonu korporatiboak eta errenta aldakorra: jasangarritasun-arriskua kalifikatzen duten agentzia hautatuetara joko da.
 - ✓ Inbertsio-funtsen bidezko zeharkako inbertsioa: kudeatzailearen mailako alderdi kualitatiboak eta inbertsio-funtsaren mailako alderdi kuantitatiboak konbinatuko dira, horretarako kontratatutako ESG datu-hornitzaileek horretarako emandako jasangarritasun-kalifikazioaren bidez.
 - ✓ Jaulkipen publikoak (zor subiranoa eta autonomia-erkidegoak): ESG alderdiekin lotutako erreferentzia-indizeak erabiliko dira.
- Behin jasangarritasun-datu eta -adierazle horiek lortu ondoren, atalase batzuk ezarri dira inbertsioak erabakitzeko prozesuaren barruan zehazteko ea jasangarritasun-arriskuaren ebaluazioa kontuan hartuz aktibo jakin batean inbertitzea baimenduta dagoen ala ez eta arrisku hori onargarritzat jotzen den ala ez.

- Aurrekoaz gain, kanpoan uzteko estrategia hauek ere aplikatuko dira:
 - ✓ Paradisu fiskaletan kokatutako jaulkitzaileak edo jaulkipenak kanpoan uztea.
 - ✓ ESG arloko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituzten konpainien esposizioen zerrenda kanpoan uztea, NACEn kanpoan utzitako sektoreekin bat etorritz.
- Behin inbertsio jakin bat egitea erabaki ondoren eta zorroaren parte izatera pasatu ondoren, aldizkako jarraipena eta kontrola egingo da lehen deskribatutako ESG integrazio-irizpideekiko balizko desbideratzeak identifikatzeko, eta, hala badagokio, arduradunei jakinarazteko, erabaki egokiak hartu ahal izan ditzaten eta kasuan-kasuan desbideratzeak konpon ditzaten.

5. Onestea, berrikustea eta eguneratzea

Arrisku Batzordea arduratzen da, Administrazio Kontseiluak hala aginduta, Politika onesteaz, berrikustez eta betetzen dela zaintzeaz, eta Administrazio Kontseilua bera da Politika hori gainbegiratzeko azken ardura duena.

Konpainiaren Arriskuen Kudeaketako Funtzioaren ardura da Politika mantentzea, berrikustea eta egokitzeko proposamenak egitea; hala, aldaketak proposatuko dizkio Arrisku Batzordeari, gerora Konpainiaren Administrazio Kontseiluak onetsi dezan. Gutxienez urtean behin berrikusiko da politika hau.

I. eranskina: Arau-esparrua

Aplikagarria izan daitekeen beste edozein arau baztertu gabe, batik bat xedapen hauek arautzen dute Konpainian jasangarritasun-arriskuak integratzeko politika:

- **Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/2088 (EB) Erregelamendua, 2019ko azaroaren 27koa, Finantza-zerbitzuen sektorean jasangarritasunari buruzko informazioa zabaltzeari buruzkoa**

3. artikulua

Jasangarritasun-arriskuei lotutako politiken gardentasuna

1. Finantza-merkatuetako parte-hartzaileek inbertsio-erabakiak hartzeko prozesuan jasangarritasun-arriskuak integratzeko duten politikari buruzko informazioa argitaratuko dute beren webguneetan.
2. Finantza-aholkulariek inbertsioei edo aseguruiei buruzko aholkularitzan jasangarritasun-arriskuak integratzeko duten politikari buruzko informazioa argitaratuko dute beren webguneetan.

4. artikulua

Jasangarritasunaren arloko kontrako gorabeheren gardentasuna erakunde mailan

1. Finantza-merkatuetako parte-hartzaileek honako hauek argitaratu eta erakutsiko dituzte beren webguneetan:
 - a) inbertsio-erabakiek jasangarritasun-faktoreen gain izan ditzaketen kontrako gorabehera nagusiak kontuan hartuz gero: eginbide egokiaren politikei buruzko deklarazioa kontrako gorabehera horiei dagokienez, tamaina, izaera eta jardueren eskala kontuan hartuta, bai eta eskaintzen dituzten finantza-produktu-motak ere; edo
 - b) inbertsio-erabakiek jasangarritasun-faktoreen gain izan ditzaketen kontrako gorabehera nagusiak kontuan hartu ezean: argi eta garbi justifikatzea zergatik ez dituzten kontuan hartzen, eta, hala badagokio, kontrako gorabehera horiek kontuan hartzea aurreikusten ote duten eta noiz.
2. Finantza-merkatuetako parte-hartzaileek 1. apartatuaren a) letraren arabera emandako informazioan honako hauek jaso beharko dituzte, gutxienez:
 - a) jasangarritasunaren arloko kontrako gorabehera nagusiak identifikatzeko eta lehenesteko beren politikei buruzko informazioa eta horri buruzko adierazle nagusiak;
 - b) jasangarritasunaren arloko kontrako gorabehera nagusien eta horrekin lotuta hasitako edozein ekintza programaturen deskribapena, egokia denean;
 - c) inplikazio-politikei buruzko laburpen laburrak, 2007/36/EE Zuzentarauaren 3. artikulua g) letran xedatutakoaren arabera, hala badagokio;
 - d) enpresa-jokabideko kode arduradunak eta eginbide egokiaren nahiz txostengintzaren arloan nazioartean aitortutako arauak errespetatzen dituela aipatzea, eta, hala dagokionean, Parisko Akordioaren epe luzerako helburuekin duen lerrokatze-maila.

3. 1. apartatuan xedatutakoa gorabehera, 2021eko ekainaren 30etik aurrera, ekitaldian zehar 500 langileren batez besteko kopuruaren irizpidea gainditzen duten finantza-merkatuetako parte-hartzaileek deklarazio bat argitaratu eta erakutsiko dute beren webgunean inbertsio-erabakiek jasagarritasun-faktoreen gain izan ditzaketen kontrako gorabehera nagusiekin lotutako eginbide egokiaren beren politikei buruz. Deklarazio horretan, 2. apartatuan adierazitako informazioa jaso beharko da gutxienez.

4. Artikulu honen 1. apartatuan xedatutakoa gorabehera, 2021eko ekainaren 30etik aurrera, finantza-merkatuetako parte-hartzaileek, baldin eta talde handi bateko sozietate matrizeak badira (2013/34/EB Zuzentarauaren 3. artikuluko 7. apartatuan adierazitakoaren arabera) eta taldearen balantzea ixteko datan, oinarri kontsolidatuan, ekitaldian zehar 500 langileren batez besteko kopuruaren irizpidea gainditzen badute, deklarazio bat argitaratu eta erakutsiko dute beren webgunean inbertsio-erabakiek jasagarritasun-faktoreen gain izan ditzaketen kontrako gorabehera nagusiekin lotutako eginbide egokiaren beren politikei buruz. Deklarazio horretan, 2. apartatuan adierazitako informazioa jaso beharko da gutxienez.